

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1335/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko abenduaren 16koa, 881/2004/EE Erregelamendua, Europako Trenbide Agentziarena, aldatzekoa

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: **REGLAMENTO (CE) No 1335/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 que modifica el Reglamento (CE) no 881/2004 por el que se crea una Agencia Ferroviaria Europea (Reglamento de la Agencia)** (Diario Oficial de la Unión Europea, L 354/51, de 31.12.2008)

**1335/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA
2008ko abenduaren 16koa**

881/2004/EE Erregelamendua, Europako Trenbide Agentziarena, aldatzekoa

(Agentziaren Erregelamendua)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,
Europako Erkidegoa eratzen duen Tratataua, eta, bereziki, haren 71. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ⁽¹⁾ aztertu dute,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuaren ⁽²⁾ 251. artikulua xedatzen duen prozedurarekin bat etorritik,

Honako hauek kontuan hartu dira:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 881/2004/EE Erregelamendua ⁽³⁾, 2004ko apirilaren 29koa, Europako Trenbide Agentzia (hemendik aurrera «Agentzia») sortu zuen, eta mugarik gabeko trenbide-espazio europar baten sorreran laguntza tekniko emateko zeregina eman zion. Kontuan harturik, lehenik, trenbideen elkarreragiletasunari eta segurtasunari buruzko Batasuneko legeriak izan duen garapena, bigarrenik, merkatuaren eboluzioa eta, azkenik, Agentziaren funtzionamenduari eta Agentziaren eta Batzordearen arteko harremanekin lortutako esperientzia, Erregelamendu horri aldaketa batzuk egitea dagokio, eta, bereziki, zeregin batzuk gehitzea.

(2) Estatu-arauak honako zuzentarau hauen esparruan jakinarazten zaizkio Batzordeari: batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/57/EE Zuzentaraua, 2008ko ekainaren 17koa, batasuneko trenbide-sistemaren elkarreragiletasunari buruzkoa (bertsio zuzendua) ⁽⁴⁾ (hemendik aurrera «trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentaraua» izendatuko da) eta, bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/49/EE Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, Batasuneko trenbideen segurtasunari buruzkoa ⁽⁵⁾ (trenbide-segurtasunaren Zuzentaraua). Arau-multzo biak aztertu beharko dira, beraz, indarrean dauden segurtasun-metodo erkideekin eta elkarreragiletasunaren espezifikazio teknikoekin (EET) bateragarriak diren ala ez, eta, orobat, arau horiek indarrean dauden segurtasunari buruzko helburu erkideak lortzeko balio duten aztertzeke.

(3) Garrantzizkoak diren EETetara moldatzen ez diren ibilgailuak abian jartzeko baimentze-prozedura errazteko, estatu kide bakoitzean indarrean dauden segurtasun-arau eta arau tekniko guztiak hiru taldetan sailkatu behar dira, eta sailkapen horren emaitza erreferentzia-dokumentu baten aurkeztu. Horrela, dokumentu hori sortu eta eguneratzeko proiektu bat egitea eskatu zaio Agentziari; dokumentu horretan, garrantzizko parametro tekniko bakoitzak estatuetakoa arau aplikagarriekiko duen harremana ezarriko da, eta elkarren arteko onarpenari buruzko proiektuen alderdi zehatzetako buruzko irizpen teknikoak emango dira. Parametroen zerrenda aztertu ondoren, Agentziak zerrenda hori aldatzea gomenda dezake.

(4) Agentziaren eskumen juridikoak eta jakintza teknikoen maila altua kontuan harturik, erakunde horri dagokio sektorearen jarduerarekin lotuta sortzen diren arazo konplexuei buruzko azalpenak ematea. Hori dela eta, ibilgailuak abian jartzeko baimenak emateko garaian, egoera hauetan eskatu ahalko zaio Agentziari irizpen teknikoak emateko: segurtasun-alorreko estatu-aginteak ezezko erabakia eman duenetan, edo estatu-arauen eta trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentzarauan ezarritako parametro teknikoen arteko baliokidetasunei buruzko alderdiak argitu behar direnean.

(5) EETen premiazko aldaketei buruzko irizpena eskatu ahal izango zaio Agentziari.

(6) Agentziak, 881/1004/EE Erregelamenduko 13. artikulua indarrez, estatu kideek jakinarazitako erakunde lanaren kalitatea kontrola dezake. Batzordearen ikerketa batek erakutsi du, ordea, erakunde horien jakinarazpena

¹ C 256 EO, 2007/10/27koa, 39. or.

² Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, 2007ko azaroaren 29koa (EO C 297 E, 2008/11/20koa, 140. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2008ko martxoaren 4koa (EO C 93 E, 2008/04/15ekoa, 1. or) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko uztailaren 9koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea). Kontseiluaren Erabakia, 2008ko abenduaren 1ekoa.

³ L 164 EO, 2004/04/30ekoa, 1. or. Bertsio zuzendua L 220 EO, 2004/06/21ekoa, 3. or.

⁴ L 191 EO, 2008/07/18koa, 1. or.

⁵ L 164 EO, 2004/04/30ekoa, 1. or. Bertsio zuzendua L 220 EO, 2004/06/21ekoa, 16. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

egiteko bete beharreko irizpideak oso modu zabalean interpreta daitezkeela. Estatu kideek jakinarazpen-erakundeak aukeratzeko eta irizpenak betetzen direla egiaztatzeke egin beharreko kontroletan duten erantzukizunari eragin gabe, garrantzitsua da interpretazio-desadostasun horien ondorioak aztertzea eta desadostasun horiek ez duela zailtzen batak besteari adostasun-egiaztagiriak eta egiaztapenerako «EE» adierazpenak aitortzea.

Hori dela eta, Agentziak ahalmena izan behar du jakinarazitako erakundeen jarduera kontrolatzeko, bai eta, arrazoituz gero, erakunde horiek trenbideen elkarreragiletasunari buruzko zuzentarauan xedatutako irizpideak betetzen dituztela bermatzeko ikuskapenak egitekoa ere.

(7) 881/2004/EE Erregelamenduko 15. artikulua aurreikusten du Agentziak, Batzordeak hala eskatuta, hornikuntza-proiektuen finantzaketa erkidearen eskakizun zehatz batzuk azter ditzakeela, proiektu horiek «elkarreragileak» diren egiaztatzeke xedearekin. Proiektu horien definizioa zabaldu behar da, ordea, modu horretan sistemak zenbait proiektutan daukan koherentzia aztertu ahal izateko; esate baterako, Tren Zirkulazioa Kudeatzeko Sistema Europarra (ERTMS) ezartzeko proiektuetan.

(8) Nazioarteko egoeraren eboluzioa kontuan harturik eta, bereziki, nazioarteko trenbide-garraioari buruzko 1999ko Hitzarmena (NTGH) indarrean jarri dela ikusita, egokia da Agentziari trenbide-enpresen eta jabeen arteko harremana aztertu dezan eskatzea; batez ere, mantentze-lanei dagokienez, horrela Agentziak mantentze-lantegiak egiaztatzeke arloan duen jarduera zabal dezan. Ildo horretatik, Agentziak mantentze-egiaztapenaren sistema aplikatzeke buruzko gomendioak aurkezteke ahalmena izan behar du, trenbide-segurtasunaren zuzentzarauko 14. bis artikulua erekin bat etorritik.

(9) Mantentze-lanez arduratzen diren erakundeen eta mantentze-lantegien egiaztapen-sistemak lantzean, Agentziak egiaztatu beharko du sistema horiek bateragarriak direla trenbide-enpresei dagoeneko esleitu zaizkien erantzukizunekin eta mantentzeaz arduratzen diren erakundeek etorkizunean izango duten betekizunarekin. Sistema horiek segurtasun-egiaztapenaren prozedura erraztu eta administrazio-kargak gehiegizkoak izatea saihestu behar dute, bai eta kontrolak, ikuskapenak eta auditoriak bikoiztea ere.

(10) Hirugarren trenbide-poltsa onartu ondoren, komenigarria da erreferentzia egitea Agentziari hainbat zeregin egintzen dizkion eta Agentziari bere gomendioak aurkeztea baimentzen dion 2007/59/EE Zuzentzarauari, Europako Parlamentua eta Kontseiluarena, 2007ko urriaren 23koa, Erkidegoko trenbide-sisteman trenen eta tren-makinen gidariak egiaztatzeke buruzkoa (1) (hemendik aurrera «Trenen eta tren-makinen gidariei buruzko zuzentzarau»).

(11) Trenetako langileei dagokienez, Agentziari dagokio trenen barnean segurtasunarekin lotutako oinarritzko eginkizunak betetzen dituzten bestelako langileak egiaztatzeke aukerak aurkitzea eta aukera horien ondorioak aztertzea. Gidariez eta trenaren barnean segurtasunarekin lotutako oinarritzko eginkizunak betetzen dituzten beste langileez gainera, Agentziak aztertuko ditu trenbide-sistemaren mantentzean eta funtzionamenduan parte hartzen duten beste langileen gaitasun profesionalak zehazteke irizpide bereziak.

(12) Trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentzarauak eta trenbide-segurtasunaren Zuzentzarauak hainbat dokumentu-mota arautzen dituzte, hots, egiaztapenerako EE adierazpenak, segurtasun-baimen eta -egiaztagirak eta batzordeari jakinarazitako estatu-arauak. Horrenbestez, Agentziaren eskumenekoa da bermatzea jendeak dokumentu horiek eskuragarri izatea, bai eta ibilgailu eta hornikuntzen estatu-erregistroak eta Agentzian gordetako erregistroak ere.

(13) Agentziak aztertu behar du zer diru-sarrera behar diren dokumentu horien eta erregistroen eskuragarritasunarekin lotutako lanetarako, 881/2004/EE Erregelamenduaren 38. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorritik.

(14) Bigarren trenbide-poltsa onartu zenetik, ERTMS hainbat ekimenekin batera garatu eta aplikatu da, besteak beste: Batzordearen eta sektoreko hainbat eragileren artean lankidetzak-akordio bat sinatzea; lankidetzak-akordio hori aplikatzeko batzorde zuzendari bat sortzea; Batzordeak ERTMS/ETCS trenbide-seinaleen sistema europarra hedatzeke buruz Europako Parlamentuari eta Kontseiluari zuzendutako Adierazpen bat onartzea; interes erkideko lehentasuneko proiektua den ERTMS proiekturako koordinatzaile europar bat izendatzea; urteko lan-egitarauen esparruan Agentziaren autoritate-sistema betekizuna zehaztea; eta, azkenik, trenbide arruntari lotutako aginte-kontrolen eta seinaleen EET⁽²⁾ onartzea. Agentziak arlo horri egiten dion ekarpenaren garrantzia haziz doala ikusita, bere eginkizunak zehaztea komeni da.

(15) Agentziak liderraren egitekoa beteko du etorkizunean, ERTMS proiektua trenbide-sistema osora hedatzean. Hori dela eta, koherentzia bermatu behar da estatu-tako migrazio-planen egutegian.

¹ L 315 EO, 2007/12/03koa, 51.or.

² Batzordearen 2006/679/EE Erabakia, 2006ko martxoaren 28koa, Europa barruko trenbide-sistemaren kontrol eta aginteen eta seinaleen azpisistemari dagokion elkarreragiletasunaren espezifikazio teknikoari buruzkoa (L 284 EO, 2006/10/17koa, 1. or.)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(16) Batzordeak 2008ko apirilaren 23an onartutako ERTMSren bertsioak inbertsioen errendimendu nahikoa lortzeko bidea eman behar die elkarreragilea den gai mugikorrean inbertitu duten trenbide-enpresei. Orobat, bertsio hori frogetarako bateratutako zehaztapenekin osatu behar da. Segurtasun-alorreko estatu-aginte batek eskatutako ezein zehaztapen gehigarrik ezingo du justifikaziorik gabe ekidin ERTMSren etorkizuneko bertsioez edo Batzordeak 2008ko apirilaren 23an onartutako bertsioaz hornitutako gai mugikorrek zirkulatzea dagoeneko bertsio horren arabera hornituta dauden burdinbideetan.

(17) Elkarreragiletasuna sustatzeko xedearekin, Agentziak aztertu beharko du zer eragin duen Batzordeak 2008ko apirilaren 23an onartutako bertsioa baino lehen instalatutako ERTMSren ezein bertsio moldatzeak.

(18) Hemendik aurrera, Agentziaren eskura izango da trenbide-sistema europarraren elkarreragiletasunaren eta segurtasunaren arloetan kualifikatutako aditu-kopuru handi bat. Komeni da, beraz, eginkizun zehatzak egiteko baimena ematea Agentziari, Batzordeak hala eskatuta; betiere, eginkizun horiek Agentziaren eginkizun nagusiarekin beste lehentasunak betetzearekin bateragarriak badira. Hori guztia aintzat harturik, Agentziaren zuzendari betearazleak laguntza hori onargarria den aztertuko du, eta Administrazio Kontseiluari antolaera horri buruzko jakinarazpenak emango dizkio urtean behin, gutxienez. Kontseiluak txosten hori aztertu dezake, 881/2004/EE Erregelamenduak ematen dizkion eskumenen baitan.

(19) Agentzia sortu eta ondorengo urtean proiektu-buru ugari kontratatu ziren, bost urterako, eta horren eraginez langile teknikoetako askok utzi dute Agentzia epe laburrean. Kopuru- zein kalitate-mailan ezaguera teknikoa egokia dela bermatzeko eta kontratazio-prozeduretan izan daitezkeen zailtasunei aurre hartzeko, Agentziak beste 3 urtez luzatu ahal izango ditu langile espezializatuen lan-kontratuak.

(20) Aurrekontua erabakitzeko prozedurarekin sinkronizazio hobea lortzeko, Agentziaren urteko lan-egitaraua onartzeko data aldatzea dagokio.

(21) Agentziaren lan-egitaraua eratzean, berriz, jarduera bakoitzaren xedea eta hartzailea zein diren zehaztea dagokio. Komeni da, orobat, Batzordeari jarduera bakoitzaren emaitza teknikoen berri ematea, erakunde guztietara bidaltzen den txosten orokorrean azaltzen dena baino zehetasun gehiagorekin.

(22) Erregelamendu honen xedea da Agentziaren eginkizuna zabaltzea, trenbideetako ibilgailuak egiaztatzeko prozedura erkidea soiltzean Agentziak izango duen parte-hartzea aurreikusteko, bereziki; horrenbestez, kontuan izanda estatu kideek xede hori guztiz ezin dutela bete eta, ekintzaren izaria dela medio, Batasun-mailan errazago lor daitekeela, Erkidegoak zenbait neurri har ditzake, tratatuaren 5. artikulua jasotzen duen ordezkarritasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan bertan adierazten den proportzionaltasun-printzipioa betetzeko, xede hori lortzeko behar dena arautzera mugatzen da Erregelamendu hau.

(23) Horrenbestez, 881/2004/EE Erregelamendua aldatzea dagokio.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua **Aldaketak**

Aldaketa hauek egin zaizkio 881/2004/EE Erregelamenduari:

1) Testu honek ordezkatu du 2. artikulua:
«2. artikulua

Agentziaren jarduera-motak

Agentziak ahalmen hauek izango ditu:

- a) Batzordeari 6, 7, 9 ter, 12, 14, 16, 16 bis, 16 ter, 16 quater, 17 eta 18. artikuluen aplikazioari buruzko gomendioak ematea; eta
- b) 9 bis, 10, 13 eta 15. artikuluetan xedatutakoaren arabera Batzordearentzako irizpenak ematea, bai eta estatu kideentzat ere, 10. artikulua arabera.».

a) 3. artikulua era honetan aldatu da:

- a) 1. paragrafoko lehen esaldia testu honek ordezkatu du:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«1. 6, 7, 9 ter, 12, 14, 16, 16 bis, 16 ter, 16 quater, 17 eta 18. artikuluetan aurreikusitako gomendioak lantzeko, Agentziak lan-talde kopuru mugatu bat sortuko du.»;

b) 3. paragrafoa testu honek ordezkatu du:

«3. Segurutasunaren estatu-aginteez, trenbide-segurutasunaren Zuzentarauko 16. artikuluan zehazten direnak, edo lantzen ari den gaiaren arabera eskemena duten estatu-aginteez, beren ordezkariak izendatuko dituzte parte hartu nahi duten lan-talde bakoitzeko.».

3) 8. artikulua ezabatu da.

4) Kapitulu-izenburu hau txertatu da 9. artikuluren ondoren:

«2. bis KAPITULUA

ESTATUETAKO ARAUAK, ELKARRENGANAKO ONARPENA ETA IRIZPEN TEKNIKOAK».

5) Artikulu hauek txertatu dira:

«9. bis artikulua

Estatuetakoko arauak

1. Batzordeak eskatuta, Batzordeari aurkeztu zaizkion estatu-arau berrien azterketa teknikoa egingo du Agentziak; betiere, arau hauek xedatutakoarekin bat etorritz: trenbide-segurutasunaren zuzentarauko 8. artikulua, edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/57/EE Zuzentaraua, 2008ko ekainaren 17koa, batasuneko trenbide sistemaren elkarrengiletasunari buruzkoa (bertsio bategina) (*) (hemendik aurrera «trenbideen elkarrengiletasunari buruzko Zuzentarau» izendatuko da), 17. artikuluko 3. paragrafoa.

2. Agentziak ikertuko du 1. paragrafoan aipatzen diren arauen eta indarrean dauden segurtasun-metodo erkideen zein EETen artean dagoen bateragarritasuna. Gainera, arau horiek indarrean dauden segurtasunari buruzko helburu erkideak (SHE) lortzen uzten duten ere aztertuko du Agentziak.

3. Estatu kideek emandako arrazoiak aintzat hartu ondoren, Agentziak erabakiko balu arau horietako bat segurtasun-metodo erkideekin (SME) edo EETekin bateragarriak ez direla, edo ez dutela SHEk lortzea uzten, irizpen bat aurkeztuko dio Batzordeari, Batzordeak Agentziari arauak helarazi eta hurrengo bi hilabeteetan.

9 ter artikulua

Estatu-arauen sailkapena

1. Agentziak gainontzeko estatu kideek estatu kide jakin batek abian jarritako ibilgailuak onartzea erraztuko du, 2. paragrafotik 4.era finkatutako prozeduren arabera.

2. 2009ko urtarrilaren 19an, beranduenera ere, Agentziak berrikusiko du trenbideen elkarrengiletasunari buruzko Zuzentarauaren VII. eranskineko 1. atalak jasotzen dituen parametroen zerrenda, eta egokiak diren gomendioak aurkeztuk dizkio Batzordeari.

3. Agentziak erreferentzia-dokumentu bat osatzeko proiektu bat landuko du, ibilgailuak abian jartze aldera estatu kideek aplikatzen dituzten estatu-arau guztien artean harreman bat ezari ahal izateko. Dokumentu horrek datu hauek jasoko ditu: batetik, trenbideen elkarrengiletasunari buruzko Zuzentarauaren VII. eranskinean zehaztutako parametro bakoitzari dagozkion estatu kide guztietako arauak, eta, bestetik, arau horiek zein taldekoak diren (taldeak eranskin horren 2. atalean zehazten dira). Arau horiek barne hartuko dituzte trenbideen elkarrengiletasunari buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluko 3. paragrafoan jakinarazitakoak, EET bat onartu ostean jakinarazitakoak (auzi bereziak, aztertzeke daudenak, salbuespenak), eta trenbideetako segurtasunari buruzko zuzentarauaren 8. artikuluen arabera jakinarazitakoak.

4. Trenbideen elkarrengiletasunari buruzko Zuzentarauaren VII. eranskineko 2. atalak aintzat hartzen dituen B taldeko estatu-arauak pixkanaka murrizteko xedarekin, Agentziak erreferentzia-dokumentua eguneratzeko proiektu bat prestatuko du aldian-aldian, eta Batzordeari helaraziko dio. Dokumentuaren lehengo bertsioa 2010 urtarrilaren 1a baino lehen bidaliko zaio Batzordeari.

* L 191 EO, 2008/07/18koa, 1. or.

5. Artikulu honen aplikazioaren ondorioetarako, Agentziak segurtasunaren estatu-aginteen arteko elkarlana erabiliko du, hain zuzen ere 6. artikuluan 5. paragrafoak arautzen duena, eta 3. artikuluan xedaturiko printzipioen arabera lan-talde bat sortuko du.

6) 10. artikuluan paragrafo hauek txertatu dira:

«2 bis. Agentziari irizpen teknikoak emateko eskatu ahalko diote:

- a) segurtasunaren estatu-aginte batek edo Batzordeak, trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentarauaren VII eranskineko 1. atalean jasotako parametro bati edo gehiagori buruzko estatu-arauen harremanari dagokionez;
- b) trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentarauaren 21. artikuluko 7. paragrafoan aipatutako errekurtso-erakunde eskudunak, trenbide-ibilgailu bat zerbitzuan jartzea ukatzen duen segurtasunaren estatu-aginte eskudun baten erabaki bati dagokionean.

2 ter. Batzordeak EETen premiazko aldaketei buruzko irizpen teknikoak ematea eskatu ahalko dio Agentziari, trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentarauaren 7. artikuluko 1. paragrafoarekin bat etorritik.».

7) 11. artikulua kentzen da.

8) Testu honek ordezkaturiko du 13. artikulua:

«13. artikulua

Jakinarazitako erakundeak

1. Jakinarazitako erakundeak izendatzeari dagokionez estatu kideek duten eskumenari kalterik egin gabe, Agentziak, Batzordeak hala eskatu ondoren, jakinarazitako erakundeek egindako lanaren kalitatea ikuskatu eta egoki den irizpena aurkeztu ahalko dio Batzordeari, hala dagokionean.
2. Estatu kideen eskumenei kalterik egin gabe, eta Batzordeari eskatu ostean, eta Agentziak uste badu, trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentarauaren 28 artikuluan 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera, jakinarazitako erakunde batek Zuzentaru horren VII. eranskinean adierazitako irizpideak betetzen ez dituela, Agentziak irizpide horiek betetzen diren ala ez egiaztatuko du, eta irizpen bat aurkeztuko dio batzordeari.».

9) Testu honek ordezkaturiko du 15. artikulua:

«15. artikulua

Elkarreragiletasuna Erkidegoko trenbide-sistemaren barruan

Trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentaru 9. artikulua jasotzen dituen salbuespenei kalterik egin gabe eta Batzordeari eskatu ondoren, Agentziak elkarreragiletasunaren ikuspuntutik aztertuko du egitura diseinatu zein berritza edota azpisisistema birgaitu zein berritza eskatzen duen eta Batasunaren dirulaguntza eskatu duen proiektu oro. Agentziak proiektuaren eta dagozkion EETen arteko adostasunari buruzko irizpen bat emango du, proiektuaren garrantziaren eta eskura dauden baliabideen arabera Batzordearekin adostuko duen epean; nolahi ere, epe hori ezingo da izan bi hilabete baino luzeagoa.».

10) >Kapitulu-izenburu hau txertatu da 16. artikuluan aurretik:

«3 bis. KAPITULUA

IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK».

11) Paragrafo hau gehitu zaio 16. artikuluari:

«Aipatutako gomendioak koherenteak izango dira aurretiaz esleitutako erantzukizunekin, bai trenbide-enpresei esleitutakoekin, trenbide-sistemaren segurtasunari buruzko Zuzentarauaren 4. artikulua xedatu bezala, bai eta mantentzeaz arduratzen den erakundeari esleitutakoekin ere, Zuzentaru horren 14 bis artikulua ezarri bezala; eta gomendioek osoki hartuko dituzte aintzat trenbide-enpresen eta mantentzeaz arduratzen diren erakundeen egiaztapen-mekanismoak.».

12) Artikulu hau txertatu da:

«16 bis artikulua

Mantentze-lanez arduratzen diren erakundeen ziurtapena

1. 2010eko uztailaren 1ean, beranduenean ere, Agentziak gomendio bat bidaliko dio Batzordeari, trenbideetako segurtasunari buruzko Zuzentarauaren 14 bis artikuluko 5. paragrafoaren arabera mantentzeaz arduratuko diren erakundeen ziurtapen-sistema aplikatzeko.

Agentziaren balioespenak eta gomendioak gai hauei buruzkoak izango dira, kontuan hartuz, beti ere, mantentzeaz arduratzen den erakunde batek beste alderdi batzuekin izan ditzakeen harremanak, esate baterako ibilgailuen jabeekin, trenbide-enpresekin eta azpiegituren arduradunekin:

- a) mantentzeaz arduratzen den erakundeak ibilgailuen mantentze eraginkor eta segurua bermatzeko sistema egokiak ote dituen, eragiketa- eta kudeaketa-prozesuak barne,
 - b) egiaztapen-sistemaren edukia eta baldintzak bagoien mantentzera moldaturik ote dauden,
 - c) egiaztapenaz arduratzen diren erakunde-motak zein diren eta erakunde horiei zer baldintza ezarri behar zaizkien,
 - d) mantentzeaz arduratzen diren erakundeei eman beharko litzaizkiekeen egiaztapenen formatua eta baliotasuna,
 - e) ikusketa eta kontrol tekniko eta operatiboak.
2. Batzordeak mantentzea egiaztatzeke sistema, trenbide-segurtasunari buruzko Zuzentaruaren, 14 bis artikuluko 5. paragrafoan jasota dagoena, onartu eta hiru urteko epean, Agentziak txosten bat bidaliko dio Batzordeari, sistema horren aplikazioa balioetsiz. Epe berean, Agentziak gomendio bat ere bidaliko dio Batzordeari, antzeko egiaztapen-sistema baten edukia eta zehaztasunak definitzeko xedea izango duena, eta tren-makinen, bidaiari-bagoien, elementu automotore elektrikoek edo diesel elementu automotoreen gisako beste ibilgailu batzuk mantentzeaz arduratzen diren erakundeentzat balioko duena.
3. Erregelamendu honen 9. artikuluko 2. paragrafoak agintzen duen segurtasunari buruzko txostenean aztertuko ditu Agentziak trenbideen segurtasunari buruzko Zuzentarauaren 14 bis artikuluko 8. paragrafoarekin bat etorritik erabakiko diren neurri alternatiboak. ».

13) Kapitulu-izenburu hau txertatu da 16 bis artikulua ondoren:

«3 ter KAPITULUA

TRENBIDE-ENPRESETAKO LANGILEAK».

14) Artikulu hau txertatu behar da:

«16 ter artikulua

Trenen eta tren-makinen gidariak

1. Agentziaren eginkizunak hauek izango dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/59/EE Zuzentaruari, 2007ko urriaren 23koa, Erkidegoko trenbide-sisteman trenen eta tren-makinen gidarien egiaztapenari buruzkoa (*) (Hemendik aurrera “Trenen eta tren-makinen gidariei buruzko Zuzentaru”) lotutako gaietan:

- a) proiektu bat landuko du, baimen komunitarioaren, egiaztagiriaren eta egiaztagiriaren kopia egiaztatutako ereduak proposatuz eta horien ezaugarri fisikoak deskribatuz, faltsutzeak saihesteko neurriak ere aintzat hartuko dituena;
- b) eskumena duten aginteekin elkarlanean arituko da, trenen eta tren-makinen gidarien baimenen eta egiaztagiriaren erregistroak elkarrengandik izan daitezela bermatzeko. Gai horri buruz,

* L 315 EO, 2007/12/03koa, 51. or.

Agentziak funtsezko parametroen proiektu bat landuko du, besteak beste, zehaztapen hauek bilduko dituena: erregistroetan zer datu gorde behar diren, zein formatutan, datu-trukaketarako protokoloa, eskuragarritasun-eskubideak, datuen iraunarazte-epaia eta porrota izango balitz jarraitu beharreko prozedura;

- c) aztertzaileak eta azterketak aukeratzeari buruzko irizpide bateratuen proiektu bat landuko du;
 - d) trenen eta tren-makinen gidarien egiaztapenaren eboluzioa balioetsiko du, eta horri buruzko txosten bat aurkeztuko dio Batzordeari, erregistroen funtsezko parametroak onartu eta lau urteren buruan, beranduenean ere, trenen eta tren-makinen gidariei buruzko Zuzentarauaren 22. artikuluko 4. paragrafoak xedatzen duen bezala; txosten horretan sisteman txertatu beharreko hobekuntzak jaso beharko ditu, hala badagokio, bai eta material mugikorrari eta beharrezko azpiegiturari lotutako egiaztagiri bateratua lortzeko, eskatzaileei egin beharreko ezaguera profesionalen azterketa teoriko eta praktikoari dagozkion neurriak ere;
 - e) 2012ko abenduaren 4an aztertuko du Agentziak, beranduenean ere, trenen eta tren-makinen gidariei buruzko Zuzentarauaren 4. artikuluan araututako lizentzia eta egiaztagiriak barne hartuko dituen txartel elektronikoa bat sortzeko aukera, eta kostuei eta irabaziei buruzko analisi bat egingo du gai horri buruz. Agentziak, halaber, aipatutako txartel elektronikoa baldintza tekniko eta eragilei buruzko proiektu bat prestatuko du;
 - f) trenen eta tren-makinen gidariei buruzko Zuzentaruak aplikatze aldera, estatu kideen arteko lankidetzak bultzatuko du, eta biltzarrak antolatuko ditu eskumena duten aginteen ordezkariekin;
 - g) Batzordeak hala eskatuz gero, Agentziak kostu-irabazi erlazioaren analisi bat egingo du, trenen eta tren-makinen gidariei buruzko Zuzentarauaren xedapenak estatu kide eskatzailearen lurraldean soilik mugitzen diren trenen eta tren-makinen gidariei aplikatzeari dagokiona. Kostu-irabazi erlazioaren analisiak hamar urteko epea hartuko du aintzat. Kostu-irabazi erlazioaren analisi hori, trenen eta tren-makinen gidarien Zuzentarauaren 37. artikuluko 1. puntuarekin bat etorritik erregistroak ezarri eta bi urteko epean aurkeztuko zaio Batzordeari.
 - h) Batzordeak hala eskatuz gero, Agentziak kostu-irabazi erlazioaren beste analisi bat egin eta Batzordeari aurkeztuko dio, Batzordeak berak emandako denbora baterako salbuespen-epaia bukatu baino 12 hilabete lehenago, beranduen ere.
 - i) trenen eta tren-makinen gidariei buruzko Zuzentaruaren 22. artikuluko 2. paragrafoan, a) eta b) idatz-zatietan, ezarritako sistema ondoko erregelamendu honetan xedatutakoari lotzen zaiola bermatzea: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 45/2001 (EE) Erregelamendua, 2000ko abenduaren 18koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez Batasuneko erakunde eta elkarteek pertsona fisikoak babesteari eta datu horiek libreki zirkulatzeari buruzkoa (**).
2. Trenen eta tren-makinen gidarien Zuzentaruarekin lotutako arazoetan, Agentziak gai hauei buruzko gomendioak emango ditu:
- a) A eta B kategorien mota ezberdinetako kode erkideak aldatzea, trenen eta tren-makinen gidariei buruzko Zuzentaruaren 4. artikuluko 3. paragrafoak jasotzen duen gisan;
 - b) trenen eta tren-makinen gidariei buruzko Zuzentaruaren II. eranskinaren arabera eskumena duten aginteak ezarritako osasun-baldintzak edo informazio gehigarria jasotzen dituzten kodeak;
3. Agentziak eskumena duten aginteei aurkeztu ahaliko die trenen eta tren-makinen gidarien baimenen estatutuari buruzko informazio-eskaera motibatu bat.

15) Artikulu hau txertatu da:

«16 quater artikulua

** L 8 EO, 2001/12/1ekoa, 1. or.

Trenetako beste langileak

Trenen eta tren-makinen gidariei buruzko Zuzentarauaren 28. artikularekin bat etorritik, Agentziak zehaztuko ditu, beranduen ere 2009ko ekainaren 4an aurkeztuko den txosten batean, eta 96/48/EE eta 2001/16/EE Zuzentarauen esparruan landutako zirkulazioaren funtzionamenduari eta kudeaketari buruzko EETk aintzat harturik, segurtasunerako berebiziko garrantzia duten eginkizunak dituzten gainontzeko langileen perfila eta betebeharrak; langile horien prestakuntza profesionala lagungarria izan beharko da trenbide-zirkulazioaren segurtasunerako, eta beren eginkizunak Erkidego-mailan arautu beharko dira trenen eta tren-makinen gidariei buruzko Zuzentarauaren bidez ezarritako sistemaren antzekoa izan litekeen baimen- edo egiaztagiri-sistema baten bitartez. ».

16) Testu hau jarri da 17. artikularen izenburuaren eta 1. paragrafoaren ordeztu:

«17. artikulua

Lanerako gaitasunak eta prestakuntza

1. Agentziak gomendioak emango ditu 16 ter eta 16 quater artikuluek jasotzen ez dituzten baina trenbide-sistema ustiatzen eta mantentzen parte hartzen duten langileen gaitasun profesionalak zehazteko eta horien balioespina egiteko orduan irizpide bateratuak ezartzeko xedearekin.

17) Kapitulu-izenburu hau txertatu da 17. artikularen ondoren:

«3 quater KAPITULUA

AGENTZIAREN IZAERA PUBLIKOKO ERREGISTROAK ETA DATU-BASEAK».

16) Testu hau jarri da 18. artikularen ordeztu:

«18. artikulua

Erregistroak

1. Agentziak landuko ditu, eta Batzordeari jakinarazi, gai hauei buruzko zehaztapen bateratuak:
 - a) trenbideen elkarreragiletasunari buruzko zuzentarauaren 33. artikularen arabera matrikulazio-erregistro nazionalari buruzkoak, datu-trukaketaren arloko xedapenak eta erregistro-eskaerarako inprimaki bat barne.
 - b) trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentarauaren 34. artikularekin bat etorritik baimendutako ibilgailu-moten erregistro europarra, segurtasunaren estatu-aginteekin datuak trukatzearen arloko xedapenak barne.
 - c) trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentarauaren 35. artikularen arabera azpiegitura-erregistroa.
2. Agentziak erregistro bat eratuko du trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentaruako 34. artikularen arabera estatu kideek Erkidegoko trenbide-sarean zerbitzuan sartzeko baimendutako trenbide-ibilgailuen motekin, eta egunean mantenduko du. Halaber, adostasuna adierazteko eredu baten proiektua landuko du, aipatutako Zuzentarauaren 26. artikularen arabera. ».

19) Testu hau jarri da 19. artikularen ordeztu:

«19. artikulua

Dokumentuen eta erregistroen eskuragarritasuna

1. Agentziak jendearen esku jarriko ditu trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentaruaren eta trenbide-segurtasunaren Zuzentaruaren aurreikusitako dokumentu eta erregistro hauek:
 - a) azpisistemak egiaztatzeke EE adierazpenak;
 - b) segurtasunaren estatu-aginteek erabil ditzaketen osagaien EE adostasun-adierazpenak;
 - c) 95/18/EE Zuzentaruaren arabera emandako baimenak;

- d) trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentarauaren 10. artikulua araberako emandako segurtasun-egiaztagiriak;
- e) trenbideen segurtasunari buruzko Zuzentarauaren 24. artikulua araberako Agentziari bidalitako ikuskatze-txostenak;
- f) trenbideen segurtasunari buruzko Zuzentarauaren 8. artikulua eta trenbideen elkarreragiletasunari buruzko Zuzentarauaren 5. artikuluko 5. paragrafoarekin zein 17. artikuluko 3. arekin bat etorritik, Batzordeari jakinarazitako estatu-arauak;
- g) ibilgailuen estatu-erregistroarekin lotura;
- h) azpiegituren erregistroekin lotura;
- i) baimendutako ibilgailu-moten erregistro europarra;
- j) aldaketa-eskaeren eta ERTMSren espezifikazioei aurreikusitako aldaketan erregistroa;
- k) Zirkulazioaren funtzionamenduari eta kudeaketari buruzko elkarreragiletasunaren espezifikazio teknikoekin bat etorritik, Agentziak osatzen duen ibilgailu-jabeen marken erregistroa.

2. Estatu kideek eta Batzordeak batera aztertu eta adostuko dituzte 1. paragrafoan aipatutako dokumentuak transmititzeko prozedura praktikoa, Agentziak prestatutako proiektuan oinarrituz.

3. 1. paragrafoan aipatutako dokumentuak transmitituta, dagozkien organoek adierazi ahaliko dute zein dokumentu ezingo den jarri, segurtasun arrazoiak direla medio, jendearen esku.

4. 1. paragrafoko c) eta d) idatz-zatietan aipatutako dokumentuak emateko ardura duten estatu-aginteez hilabeteko epean jakinaraziko dizkiote Agentziari dokumentu horiek emateari, berritzeari, aldatzeari eta ezetzatzeari buruz hartu dituzten erabaki guztiak.

5. Agentziak ezein dokumentu publiko edo Erregelamendu honen xedeetarako garrantzitsua den ezein konexio gehitu ahaliko dio datu base publiko horri. ».

20) Hau izango da 4. kapituluaren izenburua:

«ZEREGIN BEREZIAK».

21) Artikulu hauek txertatu dira:

«21 bis artikulua

ERTMS

1. Agentziak, Batzordearekin koordinazioan, 2. eta 5. paragrafoan zerrendatutako zereginak hartuko ditu bere gain, xede hauekin:

- a) ERTMSren garapen koherentea bermatzea;

ERTMSren materialak estatu kideetan indarrean dauden zehaztapenak bete ditzen laguntzea.

2. Agentziak prozedura bat landuko du ERTMS sistemaren zehaztapenetan aldaketak egiteko eskaerak kudeatzeko. Horretarako, Agentziak aldaketa-eskaeren eta ERTMS zehaztapenetan aurreikusitako aldaketan erregistro bat sortu eta mantenduko du.

Aurreko bertsioa abiadura nahikoan ezarri bada soilik gomendatuko du Agentziak bertsio berri bat hartzea. Bertsio berrien garapenak ez die kalterik eragingo ez ERTMS ezartzen den abiadurari, ez ERTMSren materialaren ekoizpena optimizatze beharrezkoak diren zehaztapenen egonkortasunari, ez trenbide-enpresentzako inbertsioen errendimenduari, ez eta ERTMS ezartzeko plangintza eraginkorri ere.

3. Agentziak laguntza emango die ERTMS ezartzeko plan erkidea eratze aldera Batzordeak egingo dituen jarduerari, bai eta Europa barruko garraio-korridoreetan sistema hori ezartzeko lanen koordinazioari ere.

4. Agentziak ERTMSren bertsioen kudeaketa-estrategia bat landuko ditu, bertsio ezberdinekin hornitutako sareen eta ibilgailuen arteko bateragarritasun tekniko eta eragilea bermatzeko, batetik, eta bestetik, indarrean den bertsioa zein balizko bertsio eguneratuagoak azkar ezar daitezzen pizgarriak eskaintzeko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Trenbideen elkareragiletasunari buruzko Zuzentarauaren 6. artikuluko 9. paragrafoaren indarrez, Agentziak bermatuko du ERTMSren materialaren hurrengo bertsioek atzera eragina dutela eta bateragarriak direla Batzordeak 2008ko apirilaren 23an onartu zuen bertsioarekin.

ERTMSren hornidura 2008ko apirilaren 23a baino lehen abian jarri bazen, edo data horretan hornidura hori kokatzeko edo eguneratzeko prozesua ezartze-fase aurreratuan bazegoen, Agentziak balioespen-txosten bat prestatuko du, alderdi hauek zehazteko:

- a) 2008ko apirilaren 23an Batzordeak onartu zuen bertsioa txertatzeagatik zer kostu gehigarri egin beharko dioten aurre aplikazioaren arduradunek;
- b) balizko mekanismo guztiak, finantza-mekanismoak barne, a) idatz-zatian aipatzen dena baino zaharragoak diren bertsioetatik berriagoetara aldatzeko.

Agentziaren ebaluazio-txostena jaso eta urte beteko epean hartuko ditu Batzordeak egokiak diren neurriak.

5. Agentziak jakinarazitako erakundeen *ad hoc* izaeraz aukeratutako lan-talde bat sortuko du, ERTMS proiektu zehatzetan jakinarazitako erakundeen EE egiaztatze-prozedurak modu koherentean aplikatzen direna frogatzeko, eta Agentzia bera izango da lan-talde horren burua. Agentzia segurtasunaren estatu-agentziekin elkarlanean arituko da, orobat, zerbitzuan sartzeko baimentze-prozedurak modu koherentean aplikatzen direla frogatzeko. Agentziak aurkituz gero arriskua dagoela prozedura horien mendeko materialez hornitutako ibilgailuen eta sareen artean bateragarritasun tekniko edo eragilearen gabezia izateko, horren berri emango dio Batzordeari, azken honek dagozkion neurriak har ditzan.

6. ERTMSren proiektu berezien esparruko sareen eta ibilgailuen artean bateraezintasun teknikoak sortuko balira, jakinarazitako erakundeek eta segurtasunerako estatu-aginteek bermatuko dute Agentziak aplikatutako "EE" egiaztapen-prozedurei eta zerbitzuan sartzeari buruzko informazio egoki guztia lortu ahal izatea, baita baldintza operatiboetarako ere. Komeni bada, Agentziak neurri egokiak gomendatuko dizkio Batzordeari.

7. Agentziak ERTMSren materiala egiaztatzeko prozesua aztertuko du, eta beranduen ere 2011ko urtarrilaren 1ean bidaliko dio Batzordeari bere txostena non, hala badagokio, zein hobekuntza hartu behar diren azalduko duen.

8. 7. paragrafoan aipatutako txostena oinarritzat harturik, Erkidegoan laborategiko material-mota bakar bat, erreferentzia-bide bakar bat edota egiaztapen-erakunde bakar bat erabiltzeko sor ditzakeen kostuak eta irabaziak balioetsiko ditu Batzordeak. Aipatutako egiaztapen-erakunde hori trenbideen elkareragiletasunari buruzko Zuzentarauaren VII. eranskinean jasotako irizpideei egokitu beharko zaio. Batzordeak txosten bat aurkeztu ahal du, bai eta, hala badagokio, ERTMS egiaztapen-sistema hobetzeko lege-proposamen bat ere.

21 ter artikulua

Batzordeari laguntza ematea

1. 30. artikuluko 2. paragrafoaren b) idatz-zatian ezarritako mugak gainditu gabe, eta Batzordeak hala eskatuz gero, Agentziak bere laguntza emango dio Batzordeari trenbide-sistemen elkareragiletasuna indartzera zuzendutako Batasuneko legeria aplikatzeko, bai eta Europako trenbide-sisteman segurtasunari buruzko ikuspuntu bateratu bat garatzeko ere.

2. Denborari eta izaerari dagokionez mugatua izango den laguntza horrek ezingo du eraginik izan Erregelamendu honen bidez Agentziari esleitutako bestelako eginkizunetan, eta hainbat modutakoa izango da:

- a) Batasuneko legediaren alderdi zehatz batzuk aplikatzeko moduari buruzko informazioa ematea,
 - b) ezaguera teknikoak eskatzen dituzten gaietarako buruzko irizpen teknikoak ematea,
 - c) segurtasunerako estatu-aginteen eta ikuskatze-erakundeen arteko lankidetzaren bitartez, 6. artikuluko 5. paragrafoan aurreikusten dena, informazioa biltzea.
3. Zuzendari betearazleak gutxienez urtean behin emango dio administrazio Kontseiluari artikuluko honen aplikazioaren eta horrek baliabideetan dituen eraginaren berri.

22) Testu hau jarri da 24. artikuluko 3. paragrafoaren ordean:

1335/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 354/51 2008/12/31koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«3. Betetzekoa izango bada ere 26 artikuluko 1. paragrafoak xedatutakoa, Agentziak langile hauek izango ditu:

- Agentziak gehienez 5 urterako kontratatutako aldi baterako agenteak, sektoreko profesionalen artean aukeratutako direnak, beren prestakuntzaren eta trenbideetako elkarrengaitasunaren eta segurtasunaren arloan izandako esperientziaren arabera,
- Batzordeak edo estatu kideek igorritako funtzionario gisa edo zerbitzu-eginkizunetako funtzionario gisa, gehienez ere bost urteko epe baterako kontraturiko agenteak, eta
- beste agente batzuk, exekuzio- edo idazkaritza-lanak gauzatzeko Europako Erkidegoetako beste agente batzuei aplikatu dakiekeen Araubidean zehazten diren gisan.

Agentzia lanean arituko den lehen 10 urteetan, lehen paragrafoko lehenengo murrizketan aipatutako 5 urteko epea beste hiru urtez luzatu ahal da gehienez, kontratatuen zerbitzuen jarraitasuna bermatzeko beharrezkoa balitz.».

23) Hau izango da 25. artikuluen testu berria:

a) 2. paragrafoan, testu hau jarri da c) idatz-zatiaren ordeztan:

«c) Agentziak urte bakoitzeko azaroaren 30ean onartuko du, beranduen jota, eta Batzordearen iritzia aintzat harturik, hurrengo urterako lan-egitaraua, eta estatu kideei, Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari bidaliko die. Lan-egitarau hori Erkidegoaren urteko aurrekontu-prozedurari kalterik egin gabe onartuko da. Lan-egitaraua onartu eta hamabost egunen buruan Batzordeak egitarau horrekin ados ez dagoela adierazten badu, Administrazio Kontseiluak berriro aztertu eta bi hilabeteko epean onartuko du, bigarren irakurraldi horretan balizko aldaketak egin ondoren; onartua izateko, ordea, bi hereneko gehiengoa lortu beharko du, Batzordearen ordezkariak barne, edota estatu kideen ordezkari guztien adostasuna;»;

b) 3. paragrafo hau gehitu behar da:

«3. Agentziaren lan-egitarauak jarduera bakoitzeko lortu nahi diren xedeak zehaztuko ditu. Oro har, jarduera edota emaitza guztiei buruzko txosten bat idatzi beharko du, Batzordeari bidali beharrekoa.».

24) Testu hau jarri da 26. artikuluko 1. paragrafoaren ordeztan:

«1. Administrazio Kontseilua honela osatuko da: estatu kide bakoitzeko ordezkari bat, Batzordeko lau ordezkari eta sei delegatu, bozkatzeko eskubiderik gabe, Europa mailako erakunde edo giza talde hauen ordezkari gisa:

- a) trenbide-enpresak;
- b) azpiegituren administratzaileak;
- c) tren-industria,
- d) sindikatuak;
- e) bidaiariak;
- f) salerosgaien garraio-zerbitzuetako bezeroak.

Interes guztiek ordezkari bat izan dezatela bermatze aldera, Batzordeak ordezkari bat eta horren ordezkari bat izendatuko du zerrendatutako kategoria bakoitzeko, dagozkien erakunde europarrek aurkezturiko lau izeneko zerrenda batean oinarriturik.

Administrazio Kontseiluko kideak eta horien ordezkariak, berriz, arlo honetan dituzten ezagueren eta esperientziaren arabera izendatuko dira.».

25) Testu hau jarri da 33. artikuluko 1. paragrafoaren ordeztan:

«1. 9, 9 bis, 10, 13 eta 15. artikuluek agintzen dituzten eginkizunak betetzeko xedearekin, Agentziak bisitaldiak egin ahal izango ditu estatu kideetara, Administrazio Kontseiluak zehaztutako politikarekin bat etorriz. Estatu kideetako agintek Agentziako langileen lana erraztuko dute.».

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

26) Testu hau jarri da 36. artikuluko 1. paragrafoaren ordeez:

«1. Agentzia prest egongo da Europako herrialdeen parte-hartzea jasotzeko, bai eta Europako Auzotasun Politikaren xede diren herrialdeena ere, baldin eta Erregelamendu honek barne hartzen duen esparruko Batasuneko legeria onartu eta aplikatuko dutela xedatzen duten hitzarmenak sinatu badituzte Europako Erkidegoarekin.

2. artikulua

Erregelamendu hau Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Erregelamendu honen elementu guztiak izango dira derrigorrezkoak, eta zuzenean aplikatu ahalko dira estatu kide guztietan.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

Europako Parlamentuaren izenean

Lehendakaria

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean

Lehendakaria

B. LE MAIRE